| PROGRAMA | AZPIKON-TZEPTUA | EUROAK |
|---|---|---|
| 9211 | 731.00 | 520.000 |
| 9311 | 741.05 | 1.684.713 |
| | GUZTIRA | 2.204.713 |

Marokoko kalaren uretan arrantzatzen zuen flotarekin lotutako ekintza espezifikoak burutzeko eta 2000-06 Programazio Agiri-Bakarreko (PAB, Arrantza) jarduerak finantzatzeko erabiliko dira fondook (520.000 euro eta 1.684.713 euro, hurrenez hurren).

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2002ko urriaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ogasun eta Herri Administrazio sailburua,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

Nekazaritza eta Arrantza sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

| PROGRAMA | SUBCONCEPTO | EUROS |
|---|---|---|
| 9211 | 731.00 | 520.000 |
| 9311 | 741.05 | 1.684.713 |
| | TOTAL | 2.204.713 |

Los fondos se destinarán a acciones específicas relativas a la flota que faenaba en aguas del caladero de Marruecos por importe de 520.000 euros y la financiación de las actuaciones correspondientes al DOCUP Pesca 2000-06, por importe de 1.684.713 euros.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de octubre de 2002.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

La Consejera de Hacienda y Administración Pública,
IDOIA ZENARRUTZABEITIA BELDARRAIN.

El Consejero de Agricultura y Pesca,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

## HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA KULTURA SAILA

## Zk-6259

HUTSEN ZUZENKETA, ondoko dekretuarena: «182/2002 Dekretua, uztailaren 23koa, Araubide Bereziko Irakaskuntzetako eta Helduen Hezkuntzako irakasleen lanpostuetako hizkuntza eskakizunak zehazteko irizpideak eta derrigortasun-datak ezartzeko dena».

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria arautzen duen 155/1993 Dekretuak 24.2 a) artikuluan xedatzen duenez, aldizkarian egindako hutsak edo omisioak testua argitaratzeko agindu duten organoek zuzenduko dituzte, baldin eta nabarmenak badira, xedapen, egintza edo iragarkien esanahia aldatzen ez badute eta nahasbiderik ez sortzeko komeni bada. Horretarako, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian testu osoa edo kasuan kasuko testu-zatia zuzenduta argitaratzeko aginduko dute.

Araubide Bereziko Irakaskuntzetako eta Helduen Hezkuntzako irakasleen lanpostuetako hizkuntza eska-

## DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN DEPARTAMENTO DE CULTURA

## N°-6259

CORRECCIÓN DE ERRORES del Decreto 182/2002, de 23 de julio, por el que se establecen criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad en los puestos de trabajo docentes en las Enseñanzas de Régimen Especial y Educación de Personas Adultas.

El artículo 24.2 a) del Decreto 155/1993, por el que se regula el Boletín Oficial del País Vasco, establece que los meros errores u omisiones materiales que se infieran claramente del contexto y no constituya modificación o alteración del sentido de las disposiciones, actos o anuncios, pero cuya rectificación se estime conveniente a fin de evitar posibles confusiones, se salvarán por los órganos que hayan ordenado su inserción, instando la reproducción en el Boletín Oficial del País Vasco del texto o la parte necesaria del mismo con las debidas correcciones.

Advertidos errores de dicha índole en el texto Decreto 182/2002, de 23 de julio, por el que se estable-

kizunak zehazteko irizpideak eta derrigortasun-datak ezartzeari buruzko uztailaren 23ko 155/2002 Dekretua 2002ko abuztuaren 13an argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (152 zk.). Dekretu horretan huts bat gertatu denez, dagokion zuzenketa egiten da ondoren:

– Gaztelerako testuan, honako hau dioenean:

«receptividad».

Honakoa esan behar du:

«preceptividad».

cen criterios para la determinación de los perfiles lingüísticos y fechas de preceptividad en los puestos de trabajo docentes en las Enseñanzas de Régimen Especial y Educación de Personas Adultas, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 152, de 13 de agosto de 2002, se procede a su corrección:

– En la versión en castellano, donde dice:

«receptividad»

debe decir:

«preceptividad»

# Agintariak eta Langileria

## Oposaketak eta Lehiaketak

### JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

### Zk-6260

EBAZPENA, 2002ko urriaren 3koa, Giza Baliabideak Antolatzeko zuzendariarena, Estatuko Justizia Idazkaritzaren 2002ko irailaren 12ko Ebazpena argitaratzeko dena. Ebazpen horren bidez onartu eta argitaratu egin dira Justizia Administrazioko Agenteen kidegoan txanda irekian sartzeko hautaprobak —2001eko uztailaren 19ko agindu batez deitu ziren— gainditu dituzten hautagaien behin betiko zerrendak.

Aginte Judizialaren Lege Organikoaren 491. artikuluan eta Ofizial, Laguntzaile eta Agenteen Kidegoetako Erregelamendu Organikoaren 20.2 artikuluan xedatzen denez, hautatzeko prozesuetarako deialdiak Justizia Ministerioak onartuko ditu, autonomia erkidegoek txostena eman ondoren, eta Justizia Administrazioko langileen eskualdaketa jaso duten erkidegoetan gauzatuko dira.

Aipatutako Erregelamenduaren 20.3 artikuluak finkatzen duenez, halaber, deialdiaren arauak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egun berean argitaratuko dira autonomia erkidegoetako aldizkari ofizialetan. Nolanahi ere, egun berean argitaratzea ezinezkoa denean, deialdian jarritako epe-mugak eta epeak Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik hasiko direla ohartarazten du.

Hori dela eta, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren organoen eta egitekoen egitura finkatu zuen otsailaren

# Autoridades y Personal

## Oposiciones y Concursos

### DEPARTAMENTO DE JUSTICIA, EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL

### N°-6260

RESOLUCIÓN de 3 de octubre de 2002, del Director de Recursos Humanos, por la que se dispone la publicación de la Resolución de 12 de septiembre de 2002, de la Secretaría de Estado de Justicia, por la que se aprueba y publica la relación definitiva de aspirantes que han superado las pruebas selectivas para ingreso en el Cuerpo de Agentes de la Administración de Justicia, turno libre convocadas por Orden de 19 de julio de 2001.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 491 de la Ley Orgánica del Poder Judicial y en el artículo 20.2 del Reglamento Orgánico de los Cuerpos de Oficiales, Auxiliares y Agentes de la Administración de Justicia, las convocatorias de procesos selectivos se aprobarán por el Ministerio de Justicia, previo informe de las Comunidades Autónomas, y serán territorializadas en aquellas Comunidades que hayan recibido los traspasos de medios personales para el funcionamiento de la Administración de Justicia.

Asimismo, de conformidad con lo establecido en el artículo 20.3 del citado Reglamento, las normas de convocatoria se publicarán en los Boletines de las Comunidades Autónomas de forma simultánea a la publicación en el Boletín Oficial del Estado, previéndose para el supuesto de que dicha simultaneidad no fuera posible que los términos y plazos establecidos en la convocatoria se contarán a partir de la publicación en el Boletín Oficial del Estado.

En su virtud, en ejercicio de las facultades atribuidas por el artículo 14 a) del Decreto 44/2002, de 12 de